

GIPUZKOAKO INDUSTRI INGENIARIEN ELKARGO OFIZIALEAN BARNE-ARAUDIA

Hitzaurrea:

Boloniako deklarazioak eta eskolen, elkargoen eta lanbidearen esparruan izango dituen ondorio garrantzitsu eta iragarrezinek eragin dute Euskal Autonomia Erkidegoko Industri Ingeniarien Kontseiluak eta hura osatzen duten hiru Elkargoek behar diren aldaketak sustatzea etorkizunera egokitzen saiatzeko.

Prozesu horren ondorioak gure titulazioan –Industria Ingeniaria– eta haren eskumen profesionaletan sentitu litezke.

Horregatik, hiru euskal Elkargoek beren Estatutuak aldatu dituzte Industria Ingeniariaren titulurik gabeko pertsonak Elkargoarekin nolabaiteko lotura izan dezaten, elkargokidearen izaera izan gabe eta lotura horrek zerikusirik izan gabe izan ditzaketen eskumen profesionalekin.

Aurrekoa praktikan jartzeko, Elkargoko Gobernu Batzarrak, Batzar Orokorak aginduta, erregelamendu hau onartu du.

1. Ondorengo figura hauek onartu ditu Batzar Orokorak.

- Ingeniari atxikia
- Ikasle atxikia
- Enpresa atxikia (erregelamendu espezifiko batek arautuko ditu)
- Ohorezko elkargokidea (erregelamendu espezifiko batek arautuko ditu)

2. Altak.

- a) Ingeniaritza tituludunak atxikitu daitezke.
- b) Berdin, ingeniaritza karrera bateko azken ikasturtean matrikulatuta dauden ikasleak.
- c) Salbuespen gisa, Elkargoko Gobernu Batzarrak erabakitzen dituenak ere atxiki daitezke.
- d) Elkargora atxikitzeko, figura bakoitzerako zehazten den dokumentazioa aurkeztu beharko da.
- e) Behin betiko alta Elkargoko Gobernu Batzarrak onartu beharko du.

3. Bajak.

- a) Baja hartzeko arrazoiak elkargokideenen antzekoak izango dira.
- b) Salbuespen moduan, Gobernu Batzarrak erabaki ditzazke beste baja zergati batzuk.
- c) Ikasle atxiki izateko aukera hiru urteko denbora –muga izango du.
- d) Aldi horrek ez ditu inoiz gaindituko hiru urteak.
- e) Behin betiko baja Elkargoko Gobernu Batzarrak onartu beharko du.

4. Betebeharrak eta eskubideak.

Profesional eta ikasle atxikiek elkargokideen eskubide eta betebeharrak izango dituzte, hots, Elkargoaren Estatutuaren ezarritakoak, salbuespen hauekin:

- a) Eskumen profesionaletara edo legeriak Industria Ingeniariaren titulua duten pertsonak esleitzen dizkientara berez lotuta daudenak.
- b) Elkargo barruko edo kanpoko beste legeria edo araudi bat urratu edo haren aurka egin dezaketenak.
- c) Gobernu Batzarrak, hala badagokio, Elkargoko zuzendaritza-organismoak dei ditzake – hitzarekin baina botorik gabe–, baina ezingo dute aukeratu edo aukeragai izan Elkargoaren ordezkari-organismoetan.
- d) Ikasle atxikiek, gainera, murrizketak izango dituzte Elkargoak eskainitako zerbitzuetan, Elkargoko Gobernu Batzarrak ezarritakoak.
- e) Titulua lortutakoan, ikasle atxikia elkargokide edo profesional atxiki –kasuaren arabera– izango da edo baja hartuko du.



5. Kuotak.

Profesional atxikien kuotak elkargokideenen berak izango dira. Enpresa atxikien kuota Elkargoko Gobernu Batzarrak zehaztuko du.

6. Ohorezko elkargokideak.

Bereizketa hori sortu da lanbideari, industria-ingeniariaren figurari, Elkargoari edo gizarteari eskainitako zerbitzuengatik nabarmendu diren pertsona fisiko, juridiko eta pertsona taldeen merezimenduak aitortzeko; Elkargoarekin duten loturagatik edo Gobernu Batzarraren ustez bereizketa horren merezidun egiten duten beste arrazoi batengatik.

7. Interpretazioa, aldaketak eta indarraldia.

Erregelamendu honen interpretazioa, aplikazioa eta aldaketa, hari bihotz ematen dion espirituaren barruan, Gobernu Batzarrari dagokio, eta berehala aplikatzekoa izango da une horretan atxikita dauden profesional, ikasle eta enpresa guztientzat. Industri Ingeniariei Elkargoko Batzar Orokorrak, figura berri horiek deusezta ditzake eta, kasu horretan, altan dauden pertsonak Elkargoarekin duten lotura oro bertan behera geratuko da eta ezingo dute inolako eskubide eta/edo erreklamaziorik planteatu.

Donostia

2012ko Maiatzean onartua